

TREBAKUNTZA 2021-03: -KO ETA -REN IZENLAGUNAK

Sarritan zalantza izaten dugu -KO ala -EN erabili, hau da, NONGO edo NOREN kasua erabili. Batzuetan, biak dira zuzenak, baina beste batzuetan okerreko hautua egiten dugu.

Hona hemen gaiari buruzko azalpen laburra, Euskaltzaindiaren web gunetik aterata.

AZALPENA

Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik eman gai honetaz. Gramatiketan eta estilo-liburuetan eman diren azalpenak kontuan harturik, jakingarri hauek eman daitezke:

- **-ko:** 'Kokapena' adierazten du, oro har, NONGO kasuak (hau da, tokia, denbora, esparrua, jatorria, baina baita helburua ere): herriko kaleak, ikasturteko irteerak, matematikako zalantzak, Europako Parlamentua, mende-hasierako legeria, laneko tresna, bihotzeko oinazea, buruko mina...

Izan kontuan izenlagun deskribatzaileak eratzeko ere *-ko* erabiltzen dela. (→ **zenbatzaileak eta nolakotasuna (-ko/-tako: *hiru kiloko haurra / lau hankako mahaia*); → *-ko atzizki banatzailea*)**)

- **-en:** 'Jabetzaz' gain (amaren autoa), bestelako ideia bat baino gehiagoren adierazle ere izan daiteke: agentea (artistaren obra), pazientea (liburuaren itzulpena), gaia (ikasturtearen garrantzia), osotasun/zati harremana (alkandoraren mahuka), pisua, neurria (animaliaren luzera, Lurraren masa), irudikapenezko izenen edukia (mutilaren erretratua, animaliaren argazkia)...

- Askotan, biak dira zilegi, baina orduan ere bada ñabardurarik:

- Aukera garbia denean, *-en* loturak egokiagoa dirudi: orkestraren/tesiaeren zuzendaria, aldizkariaren/filmaren zuzendaria, eskuaren erradiografia, etxearen planoak...
- Ñabardura zein, bietara ontzat jo beharreko kasuak ere badira: Euskaltzaindiko bilera (NONGO) / Euskaltzaindiaren bilera (NOREN), elkarteko aretoa (NONGO) / elkartearen aretoa (NOREN), Euskal Herriko historia (Euskal Herrian gertatua; NONGO) / Euskal Herriaren historia (Euskal Herria subjektu duen historia; NOREN), etxeko jabea (egoitzan bizi direnen buru egiten duena) / etxearen jabea (eraikinen legezko jabea), elizako isiltasuna (NONGO) / Elizaren isiltasuna (NOREN), eskolako iritzia (eskolako jendearen iritzia) / eskolaren iritzia (eskola erakundearen iritzia)...
- Beste hauetan BIAK ZILEGI izanik ere, 'multzo bateko elementu' modura ulertuta, *-ko* atzizkiaren aldeko aukera da erabiliagoa: eskolako zuzendari / eskolaren zuzendari, taldeko entrenatzaile / taldearen entrenatzaile, XX taldeko abeslaria / XX taldearen abeslaria, familiako burua / familiaren burua, Bizkaiko hiriburua / Bizkaia hiriburua, unibertsitateko errektorea / unibertsitatearen errektorea, herriko alkatea / herriaren alkatea...

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Guztiarekin ere, errealitatea askoz konplexuagoa da. Esate baterako, hiztunek honela esan ohi dute: Etxeko giltzak galdu ditut mendian (nahiz giltzak etxean ez dauden). Horrelakoetan, erabilerari jarraitzea da jokamoldea.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699